Mairie de MACAYE - *MAKEA-ko Herriko Etxea*

Réunion Conseil Municipal - *Herriko kontseiluko bilkura*
20/07/2020 à 20h30

Barakatua / Excusé : Dominique BORDA

| | |
|---|---|
| **REUNION DU 20 Juillet 2020** | **2020ko uztailaren 20ko BILKURA** |
| **1. Approbation des deux derniers comptes-rendus de réunion.** | 1. **Azken bi bilkuren bildumen onarpena** |
| Les comptes rendus des réunions du 08 Juin et du 29 Juin 2020 sont approuvés. | Ekainaren 8ko eta ekainaren 29ko bilkuren bildumak onartuak dira. |
| **Le registre des délibérations est signé par les personnes présentes.** | **Egungo parte hartzaileek izenpetu dute erabakien erregistroa.** |
| **2. Création d'emplois non permanents.** | **2.Emplegu mugatuen sortzea** |
| Pour la création de ces emplois pour le centre de loisirs LEMALU, il est nécessaire de prendre une délibération.<br>Accord du Conseil à l'unanimité des présents | LEMALU asialdi zentroarentzat sortu behar diren empleguentzat, beharrezkoa da erabaki baten hartzea.<br>Aho batez onartua. |
| **3. Renforcement de réseau et éclairage au bourg.** | **3.Elektrika sarearen azkartzea eta herri zentroko argitzea** |
| Ce renforcement est nécessaire et un candélabre sera installé à côté de la maison Hiribarnea.<br>Accord du Conseil à l'unanimité des présents | Elektrika sarearen azkartzea beharrezkoa da eta Hiribarnea etxearen ondoan argi publiko bat ezarriko da.<br>Aho batez onartua. |
| **4. Schéma de mise en accessibilité numérique.** | **4.Ahalbideratze numerikoaren eskema** |
| La CAPB propose un accompagnement pour la réalisation de ce schéma pluriannuel.<br>Une délibération est à prendre pour un accord de principe à cette aide.<br>Accord du Conseil à l'unanimité des présents | EHEk proposatzen du laguntza bat urte askotako eskema bat eraikitzeko.<br>Erabaki bat hartzekoa da printzipiozko adostasun bat edukitzeko laguntza hunentzat.<br>Aho batez onartua. |
| **5. Décision modificative numéro 1 du domaine funéraire :** | **5.Hilobien lekuko lehen erabaki aldakorra** |
| L'achat et la vente de caveaux doivent être inscrits en fonctionnement, et pas en investissement. | Hilobien eros eta saltzeak funtzionamenduan ezarri behar dira eta ez inbertsioetan. |
| A ce titre il convient de diminuer le montant des dépenses d'investissement de 6800€ pour les affecter | Ondorioz, inbertsioen gastuetan 6800 €-ko diru zama kendu behar da eta gehitu funtzionamendu gastuetan. |

| | |
|---|---|
| en dépenses de fonctionnement.<br>Pour les recettes, il convient de diminuer les recettes d'investissements de 4000€ afin de les inscrire en recettes de fonctionnement. | Diru sartzeentzat, 4000 €-ko diru zama kendu behar da inbertsioetatik, funtzionamenduan ezartzeko. |
| Accord du Conseil à l'unanimité des présents | Aho batez onartua. |
| **6. Délégations et commissions Communauté d'Agglomération Pays Basque.** | **6.Euskal Hirigune Elkargoko delegazioak eta komisioak** |
| Jean René ETCHEGARAY a été reconduit dans sa fonction de président de la CAPB.<br>Il choisira un vice président parmi les délégués fléchés par les pôles pour le Conseil permanent.<br>Les pôles choisissent un animateur référent parmi les délégués fléchés. Pour ce faire, une réunion entre les maires élus a été réalisée afin de s'entendre sur les délégués à choisir.<br>Sur le pôle d'Hasparren, il y a 6 candidats pour 4 postes (Monsieur GASTAMBIDE, Monsieur HARAN, Madame NADAUD, Madame PARGADE, Madame AYENSA et Monsieur DAGORRET).<br>Choix est fait de faire appliquer la parité.<br>Parmi les commissions thématiques, certains élus de Macaye se sont positionnés : | Jean René ECHEGARAY berriz izendatua izan da EHEko lehendakari.<br>Hautatuko ditu 15 lehendakari orde kontseilu permanentetik, azken hauek polo bakotxak izendatuak ukanen dituelarik.<br>Polo bakotxak hautatzen du animatzaile buru bat.<br>Azken hunen hautatzeko, auzapezen arteko bilkura bat iragan da elgarrekin akomeatzeko nor izendatu.<br>Hazparneko poloan 6 hautagai dira 4 postuentzat (GASTAMBIDE jauna, HARAN jauna, NADAUD anderea, PARGADE anderea, AYENSA anderea eta DAGORRET jauna).<br>Gizon-emazteen arteko oreka bat egitea hautatua izan da.<br>Komisioentzat, Makeako hautetsi batzu proposatu dira : |
| Transition Ecologique : SAINT ESTEBEN Beñat<br>Agriculture montagne : SAINT ESTEBEN Beñat et DUHART Ramuntxo<br>Cycle de l'eau : CLAVERIE Dominique<br>Ressources Humaines/Fiscalité : AUCHOBERRY Lorraine et SIMON Michel<br>Politique linguistique et culturelle : OXARANGO Armelle et INDART Laurence<br>Relations transfrontalières : CLAVERIE Dominique | Trantsizio ekologikoa : SAINT ESTEBEN Beñat<br>Laborantza eta mendia : SAINT ESTEBEN Beñat eta DUHART Ramuntxo<br>Ura : CLAVERIE Dominique<br>Langileak/Zergak : AUCHOBERRY Lorraine eta SIMON Michel<br>Hizkuntza eta kultura politika : OXARANGO Armelle eta INDART Laurence<br>Muga gaindiko harremanak : CLAVERIE Dominique |
| Pour information, les maires même s'ils ne sont pas délégués pourront assister aux débats dans les réunions du pôle d'Hasparren. | Bestalde, auzapezak delegatuak ez izanik ere, parte hartzen ahalko dute Hazparne poloko bilkuretako eztabaidetan. |
| **7. Point sur l'EPFL** | **7.EPFL** |
| Monsieur FIEU a été rencontré le 02/07/2020 afin d'aborder le sujet de la maison Kuskua qui est à vendre.<br>Il s'agit d'un outil public au service des collectivités | Joan den uztailaren 2an, FIEU jauna etorri da herriko etxera hitz egiteko hautetsi batzuekin saltzekotan den Kuskua etxea aipatzeko.<br>EPFL ipar euskal herriko kolektibitateentzat plantan |

| | |
|---|---|
| permettant de réguler le foncier habitat. Ils peuvent notamment acheter des bien bâtis ou non bâtis au nom de la commune.<br><br>Une délibération sera à prendre pour mandater l'EPFL.<br><br><u>Accord du Conseil à l'unanimité des présents</u> | jarria den tresna bat da, batez ere lur eraikigarrien eta eraikutzen prezioak erregulatzeko. Erosteko ahalmena dute, kolektibitaten ordez, azken hunek proiektu bat baldin badu.<br><br>Erabaki bat hartua izanen da EPFL izendatzeko.<br><br><u>Aho batez onartua.</u> |
| **<u>8. Subventions</u>**<br><br>De nouvelles demandes de subventions ont été reçues. Le Conseil décide à l'unanimité des présents, de valider les subventions suivantes :<br><br><u>Airetik</u> : Association en difficulté financière, avec un déficit de 5 000€. Décision est prise de se rapprocher des autres communes afin de voir le montant de subvention qu'ils souhaitent leur attribuer.<br>Airetik organisera cette année le tournoi Esku Pilota.<br><br><u>Ezti-etxea</u> : Afin de leur permettre le lancement du projet de miellerie, il est décidé de leur verser une subvention de 400€<br><br><u>APE Gure Haurren Eskola</u> : Même montant que les autres années<br><br><u>Itsasuko Ikastola :</u> 6 élèves scolarisés, subvention de 600€ par élève, soit pour un montant total de 3600€.<br><br><u>Laborantza ganbara</u> : Même montant que les autres années | **<u>8.Diru laguntzak</u>**<br><br>Diru laguntza eskaera berri batzu errezibituak izan dira. Kontseiluak aho batez onartzen ditu ondoko diru laguntzak :<br><br><u>Airetik :</u> Elkartea diruaren aldetik zailtasunetan da, batez ere bere konduetan 5000 €-ko zilo bat agertzen da. Ondoko herrietaz hurbiltzea erabakia izan da, jakiteko haien diru laguntzen heina.<br>Aurten Esku Pilota lehiaketa Airetik elkarteak antolatuko du.<br><br><u>Ezti-etxea :</u> Ezti etxe baten muntatzeko eta abiarazteko erabakia hartua izan da 400 €-ko diru laguntza bat emaitea.<br><br><u>APE Gure Haurren Eskola</u> : Pasatutako urteen diru laguntza berdina.<br><br><u>Itsasuko Ikastola :</u> 6 haur ikastolan, diru laguntza 600€ haurnaka, orotarat egiten du 3600€-ko diru laguntza.<br><br><u>Laborantza Ganabara :</u> Pasatutako urteen diru laguntza berdina. |
| **<u>9.Adressage, Toponymie</u>**<br><br>Le nombre de panneaux de rue a été inventorié, soit entre 70 et 75 panneaux.<br>Ce montant a été budgété, reste la pose des panneaux à prévoir.<br>Le coût proposé par Meltem industrie étant relativement élevé, il est envisagé de mutualiser ces travaux avec les employés communaux des | **<u>9. Helbideratzea, bide izendatzea</u>**<br><br>Karrikako taula numbrearen inbentarioa egina izan da eta orotarat beharko dira 70-75.<br>Taulen erostea aurrekontuan sartua izan da, aldiz falta da taulen ezartzea.<br>Meltem Industrie enpresak proposatzen du egitea prezio kario batetan. Pentsatua izan da eginaraztea herriko langileari, ondoko herrien lagileen |

| | |
|---|---|
| communes de Macaye, Mendionde et Louhossoa. | laguntzarekin. Helburua litaike taulen ezartzea Makea, Lekorne eta Luhusoko herrietan, hiru herrietako langileen artean. |
| Une rencontre doit être organisée avec la commune de Louhossoa afin de se mettre d'accord sur le nom des routes communes. | Luhusoko herriarekin elkartu beharra gira, ados izaiteko bideen izenetan. |
| D'autre part, il est décidé de fournir pour chaque habitation des panneaux comportant le numéro et le nom de la maison.<br>Cela représente un coût supplémentaire de 3300€ à inscrire au budget supplémentaire.<br>La pose de ces panneaux numérotés sera faite par les propriétaires des maisons. | Bestalde, hautatua izan da etxe bakotxari emaitea taula bat, zenbakia eta etxearen izenarekin.<br>Azken erabaki hunek, 3300 €-ko gastu bat gehitzen du aurrekontuan.<br>Izen eta zenbaki taulen ezartzea, etxeetako jabe bakotxak eginen du. |
| <u>**10. Rampe pour l'église**</u> | <u>**10.Elizako baranda**</u> |
| Il est nécessaire d'installer une rampe pour le cimetière. Un devis de 780 €a été fourni. | Hilerrietarat joateko, beharrezkoa da baranda baten instalatzea. 780 €-ko debisa bat ukana izan da. |
| <u>Accord du Conseil à l'unanimité des présents</u> | <u>Aho batez onartua.</u> |
| <u>**11. Litiges permis de construire chantiers lieu dit Idiberria**</u> | <u>**11. Idiberriko eraikitze permisen kalapitak**</u> |
| Une demande de pièces complémentaires pour le permis de construire est arrivée. Une régularisation de la situation du hangar est également en cours.<br>Lecture est faite des courriers de réponse aux lettres reçues. | Dokumentu gehigarri baten galdea egina izan da eraikitzeko permisa batentzat. Aterpearen erregulazioa egiten ari dira. Errezibitutako gutunen erantzuna irakurriak izan dira. |
| <u>**12. Questions diverses.**</u> | <u>**12. Beste galderak**</u> |
| *La famille Fagouet souhaite acheter un peu de forêt autour de leur parcelle. Voir la surface qu'ils souhaiteraient. | *Fagouet familiak nahi du oihan puska bat erosi haien etxe ondoan. Ikusi behar da zonbat eremu nahi duten. |
| *Projet de gîte à Etxartia : l'urbanisme réclame une borne à incendie ou un bassin de rétention pour respecter les normes incendies et pour voir valider le projet de permis. Le coût est d'environ 4000€.<br>La famille opterait pour le bassin de rétention, le Conseil municipal donne un accord de principe.<br>Reste à déterminer comment réaliser le partage des coûts entre la famille et la municipalité. | *Etxartiako landetxe proiektua : hirigintza serbitsuak eskatzen du sute iturbegi bat edo huraska bat sute legeak errepetatzeko gisan eta eraikitzeko permisa onartzeko.<br>4000 €-ko gastu bat da.<br>Huraska bat nahiago luke familiak, kontseiluak printzipiozko adostasun bat emaiten du.<br>Oraindik ez da erabakia izan nork duen pagatuko, familia eta herriaren artean. |

| | |
|---|---|
| *Projet de micro-crèche a Etxe-Handia : une réponse négative leur sera donnée. | *Etxe Handiko haurzaindegi baten sortzea : erantzun negatibo bat bidalia izanen zaie. |
| *Réflexion à mener sur l'Eusko : voir comment nous pourrions nous engager un peu plus dans la démarche.<br>Le Trésor Public n'acceptant pas les Eusko, cela limite l'utilisation que la commune peut en faire.<br>Bixente Uhalde s'occupe de prendre contact avec Eusko pour voir comment cela fonctionne. | *Euskoaren erabilpen gogoetak : nahi ginuke ikusi nola engaiatzen ahal giren Euskoaren erabilpena gehiagotan.<br>Altxor Publikoak ez duenez onartzen Euskorik, herriarentzat aski mugatua litaike erabilpena. Bixente Uhalde sartzen da harremanetan Eusko elkarteko kideekin eta haiekin antolatua izanen da bilkura bat. |
| *Demandes de location foyer pour les mois de Septembre et Octobre : au vu de la situation sanitaire, il est décidé de ne valider les réservations de loyer que pour les villageois. | *Mindegiaren alokatzea iraila eta urriko hilabeteentzat : ikusiz osasun egoera, erabakia izan da mindegia gela alokatzea bakarrik herritarreri. |
| *Commission Communication.<br>- Travaille actuellement sur le bulletin municipal dont les articles sont présentés à l'assemblée pour validation.<br>- Proposition de créer un groupe whatsapp composé de tous les conseillers municipaux.<br>- Proposition de créer un groupe whatsapp composé des habitants de Macaye (un numéro par foyer), les administrateurs étant les seuls à pouvoir envoyer des messages. A utiliser pour des urgences seulement.<br><br>- Proposition d'envoi de courrier aux Makear pour leur demander l'autorisation de leur envoyer les documents officiels par courriel ainsi qu'un numéro de portable. On demande qu'ils répondent par email pour récupérer leur adresse email correcte. | *Komunikazio komisioa<br>- Herriko aldizkariaren gainean lan bat eramana da. Azken hunen artikuluak baieztatzeko aurkeztuak izan dira kontseiluari.<br>- Watsapp talde baten sortzea proposatua izan da herriko hautetsien artean.<br>- Watsapp talde baten sortzea proposatu izan da Makeako herritarren artean (etxeka zenbakia bat), administratzaileek lukete bakarrik idazteko ahalmena taldean. Informazio garrantzitsuen helarazteko egina lirateke.<br>- Proposatua izan da gutun bat Makearreri bidaltzea haien adosmena ukaiteko, gutun elektronikoz (e-mail) bidaltzeko dokumentu ofizialak. Gutun hortan galdegina zaie ere, haien etxeko mugikor baten zenbakia ezartzea. Galdegina zaie gutun elektronikoz erantzutea, haien helbide elektronikoa errekuperatzeko gisan. |
| *Etxe Handia : Permis pour zone artisanale validé. | *Etxe Handia : Ofiziale guneko permisa guziak onartuak izan dira. |